


VILLA MARÍA DEL CARMEN
D MAILA

INTXAURRONDO 68



Ignacio Mendizabal, 1930

Deskribapena

Estilo neoeuskaldun berantiarreko villa; oinplano trinkoa du, eta bi isurki desberdinez eratu estalkia. Harri hormaz amaitutako erdisotoa, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupeko bigarren solairua dauzka. Detaile erregionalistak lehen solairuan hasten dira bilbadura-marrazkiekin eta murru aurreratuekin, hauek hiru zati egiten dituztela horma pikoetan: murru horietako batek bat egiten du teilatuko gailurrarekin, eta tarteko beste batekin eskailearako espazio bat hartzen du, fatxada nagusian ikusten diren bao desfasatuek erakusten dutenaren arabera. Bilbadurazko pareta arina murruetatik bereizteko printzipioari jarraikiz, albo fatxadek presentzia masiboagoa daukate.

D mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: albo fatxadan erantsitako atala.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: zurezko elementuak, bilbadurak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.